



Ekiozu berrotegiari

Gai honekin zerikusia duten arloak

- NATUR ZIENTZIAK.
- MATEMATIKA.
- TEKNOLOGIA.


Azken garaian komunikabide guztietan etengabe azaltzen da gas jakin batzuek atmosferan sortzen duten berotegi efektua izan daitekeela klima aldaketaren eragileetako bat. Baina, zer da berotegi bat? Zertan datza?

HELBURUAK

- Berotegi txiki bat egitea teknologiko trebetasunak garatuz.
- Estalki gisa erabiltzen den plastikoaren lodierak berotegiaren barruko tenperaturan duen eragina aztertzea.
- Ondorioak ateratzea.
- Egindako ikerketak klima aldaketarekin duen lotura aztertzea.


MATERIALAK

- ◆ Alkandorak gordetzeko kutxa bat.
- ◆ Burdin haria edo alanbrea.
- ◆ Hiru lodiera desberdineko plastiko gardena.
- ◆ Cello papera zabala.
- ◆ Ordularia.
- ◆ Bi termometro.






Jardueraren garapena

1. Taldeka, berotegi txiki bat egin behar duzue.
 - Horretarako, eta ondoko eskema jarraituz, alanbreaz baliaturik lau arku egin, eta kutxan ezarri, celoz itsatsita.
 - Ondoren, hartu plastiko finena, eta berotegia erabat estali alde guztietatik.
 - Azken alde estali aurretik, kutxa barruan, alde batean, aldearekiko paralelo, termometroa jarri, tenperatura kanpotik irakurtzeko moduan.
 - Beste termometroa kanpoko tenperatura neurtzeko erabiliko da.
 - Denboran joan ahala, aldatzen al da negutegi barruko tenperatura?



2. Berotegia egin ondoren, ondoko ikerketa egin ezazue:


- Jarri berotegia eguzkitan, eta 10 minuturo, neurtu barruko tenperatura nahiz kanpoko. Sei neurketa egin ondoren, grafiko bat egin ezazue, ardatz horizontalean denbora adieraziz, eta bertikalean, berriz, negutegi barruan lortutako tenperatura.
- Jarri orain tarteko lodiera duen plastikoa eta neurtu berriz tenperatura.
- Gauza bera egin plastiko lodiena jarrita.



3. Orain, osa ezazu koadro hau eta ondorioak atera.

	Plastiko finarekin	Tarteko plastikoarekin	Plastiko lodienarekin	Ondorioak _____ _____ _____ _____ _____
Temperatura berotegitik kanpo				
Temperatura berotegi barruan				

4. Aztertu ezazue ondoko grafikoa. Zer lotura dago grafiko hau eta zuek ateratako ondorioen artean?



Iturriak: Bamola eta beste, 1987; Jouzel eta beste, 1987. Historian zehar emandako tenperatura aldaketak, izotzeko gas karbonikoa aztertu eta gero Antartidako Vostok sobietar estazioan.

5. Gero, bateratze lana egin eta ateratako ondorioak eztabaidatu.